

Udalerri Euskaldunen Eguna

Egitaraua • 2

Ekitaldi ugari antolatu dira haur, gazte eta helduentzat

Urratsak • 3

25 urteko ibilbide emankorra, bidea zabaltzen

Elkarrizketa • 4

Josu Labaka: «Uema elkarlanetik sortu zen, eta elkarlanari eutsi dio»

berria

2016ko maiatzaren 26a

Testuak: Joxi Ubeda

Euskaraz bizitzeko elkargunea

Leitzan eta maiatzaren 28an egingo da Udalerri Euskaldunen Eguna, 25 urte euskara hauspotzen lelopean, udalerri euskaldunek egindako ekarpena gogoratzeko.



Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide diren udalerriekin ez ezik, Euskal Herri osoko gainerako udalerrri euskaldunen parte hartzearekin ospatuko da Udalerrri Euskaldunen Eguna maiatzaren 28an, Leitzan.

Euskara maitatzen eta hauspotzen

A din guztietarako ekitaldiak izango dira egun osoan. Besteak beste, Uemaren batzar nagusia eta ekitaldi instituzionala, herri bazkaria, zenbait herriren arteko kirol probak, haurrentzako ikuskizun bat, *Euskara hauspotzen* izeneko *flashmob*-a, kantaldiak eta musika emanaldiak.

Goizean, udal ordezkariek Uemaren batzar nagusia egingo dute Leitzako udaletxean, eta eguerdian ekitaldi instituzionala izango da herriko plazan. Batzar nagusian, azken hilabeteotan Ueman sartzeko eskaera egin duten udal berriak onartzea espero da: Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta.

Eguerdiko ekitaldi instituzionalen udalerrri euskaldunek duten garrantzia nabarmenduko dute, eta baita azken 25 urteotan euskararen normalizazioari egin diotzen ekarpena ere. Erakunde publikoetako, euskalgintzako zein beste hainbat alorretako ordezkariek ere izango dira ekitaldian.

Ongi pasatzeko ekitaldi ugari izango dira, baina lanerako eta hausnarketarako tartea ere izango da. Goizean, hainbat herritako esperientziak partekatzeo aukera izango da arnaguneei buruzko mintegian.

Uema, Leitzako Udala eta Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuak ez ezik, beste hainbat eragile eta herritar ugari



1994an Leitzan ospatu zen Udalerrri Euskaldunen Eguna. EDURNE KOCH

aritu dira Udalerrri Euskaldunen Eguna antolatzen. Besteak beste, Aurrera elkarte, Aurrera dantza taldea, Jeiki abesbatza, Leitzako bertso eskola, Karrape irratia, Kiliklon Ekoizpenak, Atekabeltz gazte asanblada, Denok Bat guraso elkarte, Koskagain eta Kaxkabeltza elkarte.

Mikel Zabaleta Leitzako alkateak Udalerrri Euskaldunen Eguna antolaketan Leitzako herria oso pozik inplikatu dela esan zuen maiatzaren 18an, Donostian izan zen maiatzaren 18an, Donostian izan zen aurkezpen ekitaldian. «Duela 22 urte Leitzan ospatu zen Uema eguna, eta, orain, Uemak mende laurdena bete izana ere Leitzan ospatuko dugu, udalerrri euskaldunetako herritarrekin,

EGITARAUA

- 09:00.** Diana txistulariekin.
- 10:00.** Arnaguneeen tailerra, Atekabeltz gaztetxean.
- 10:00.** Uemaren batzar nagusia.
- 11:30.** Herrien arteko kirolak.
- 12:30.** Udalerrri euskaldunak, 25 urte euskara hauspotzen ekitaldia.
- 13:15.** Flashmob saioa: *Euskara hauspotzen*.
- 14:30.** Herri bazkaria.
- 15:30.** Kantaldia, Angel Mariezkurrena abeslariarekin.
- 18:00.** Haurrentzako ikuskizuna DJ Porrurekin.
- 19:30.** R Ke R elektrotaranga, herriko kaleetan barrena.
- 23:30.** Kontzertua: Lur J eta Akort Atekabeltz gaztetxean.

eta horrek ilusio handia egingo du bai Leitzako Udalari eta baita herritari ere».

Eneka Maiz Etxarri Aranazko alkateak nabarmendu zuenez, Udalerrri Euskaldunen Eguna batera sortu zen Uema. «Aizarnazabal, Udalerrri Euskaldunen Eguna ospatu zuten lehen aldiz 1991ko maiatzaren 5ean, eta egun hartan egin zuten lehen batzarra Uema sortu zuten udal ordezkariek. Aurtun, beraz, Uemak ez ezik Udalerrri Euskaldunen Eguna ere 25 urte beteko ditu».

Uemak ekitaldi instituzionala egin zuen Aizarnazabal maiatzaren 5ean, urteurrena gogoratzeko. «Maiatzaren 28an, berriz, Leitzan, ekitaldi herrikoia egin nahi dugu, festa eta aldarrikapena uztartuz. Festa, udalerrri euskaldunek herri honi egin dioten ekarpena gogoratzeko, eta 25 urtean egindako lana eta bidea aitortzeko. Aldarrikapena, euskaraz bizi nahi dugula gogoratzeko eta udalerrri euskaldunok babes berezia eta hizkuntza politika aurrerakoa merezi dugula esateko».

«Hauspotzen, hizkuntzaren sua indartzen, euskara maitatzen, lanean, pasioz, adorez, hauspotzen, 25 urtez», dio aurtengo Udalerrri Euskaldunen Egunerako sortu duten kantuak. Miel Mari Elosegi *Luze* Leitzako bertso eskolako kidea idatzi ditu hitzak, eta musikaz arduratu dira Unai Zabaleta (txistuak), Leitzako Erleta eskolako ikasleak eta DJ Porru (ahotsak), eta Tomson Gorostegi Kiliklon Ekoizpenak enpresako kidea. Kantuarekin, bideoklip bat ere egin dute.

Oñateko Udala

Euskaraz gara!

UeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Getariako Udala

Getarian ere EUSKARAZ!

UeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Udalerrri euskaldunak: euskarak behar duen hauspoa.

Zorionak UEMA!

ZARAUZKO UDALA

ZESTOAKO UDALA

Zestoa, udalerrri euskalduna

Zorionak Uema!

UeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.uema.eus

Mende laurden bat geroago, egun eta herri berean, Uemaren urteurrena ospatzeko, ibilbidea gogoratzeko eta aurrera begirako erronkak aurkezteko ekitaldia egin zen. 25 urte pasatu diren arren, Uemak badu «gaurkotasuna», Josu Labaka lehendakariak azpimarratu zuenez.

Uema inoiz baino beharrezkoagoa dela esan zuen Labakak: «Udalerririk euskaldunenak ere erdalduntzen ari zaizkigunez ezinbestekoa delako horiek berariaz zaindu eta babestuko dituen hizkuntza politika».

Lehen urratsak

Udalerrri Euskaldunen Mugimendua 1988an sortu zen, Euskal Herriaren Euskaraz elkarrekin urte hartan udaletan aurkeztu zuen mozio baten inguruan. Mozio hartan herri euskaldunetako udalek euskara hutsean lan egitea proposatzen zuten, eta Euskal Herriko 32 udalek onartu zuten. Mozioarekin batera, Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia onartu zuten, administrazioan eta udalerrietan euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko eta bitartekoak jartzeko asmoarekin.

Onartutakoa bete nahian hasieran, udal haiek laster konturatu ziren aurrera egin ahal izateko beraien arteko koordinazioa beharrezkoa izango zutela, eta mozioa onartu zuten udaletako batzuek elkartzen hasi ziren. Koordinazioa ez ezik laguntza teknikoa eta juridikoa ere behar zutela ohartu ziren, eta Euskal Kulturaren Batzarrekin eskaini zuten hura; horretarako, Birreusalduntzearen Planifikaziorako Zerbitzua sortu zuten.

Elkartzen hasi ziren udal haiek *udalerrri elebakarrak* izena hartu zuten, baina *elebakar* hitzarekin nahasmena sor zitekeela irizita eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu nahi zituztela



Uemaren sorrerako ekitaldia. BERRIA

1991ko maiatzaren 5ean sortu zuten Uema hemeretzi udalek, Aizarnazabalen egin zuten batzar batean.

Mende laurdena bidea zabaltzen

kontuan izanik, *udalerrri euskaldunak* bihurtu ziren.

Hurrengo pausoa Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea eta estatutuak onartzea izan zuten. 1991ko maiatzaren 5ean, Aizarnazabalen, Udalerrri Euskaldunen Eguna antolatzea erabaki zuten, eta Uema osatu zuten lehen hemeretzi udaletako hautetsiek egun hartan egin zuten bilera eta Uemaren sorrerako batzarra.

Estatutuak onartu ondoren, 1992ko apirilean erregistratu zuten mankomunitatea. Urrats horrekin, hasieran mugimendua zenakizaera juridikoa hartu zuen, eta Uema udalak biltzen zituen

mankomunitatea izanik, erakunde publiko bihurtu zen.

Ibilbide emankorra

Hasieran, udalen beharrei erantzun zien Uemak, eta inprimakiak, aktak, txostenak, kartelak, erroletuak, irudiak eta abar euskaraz eskaini zizkien. 25 urteko bidean, eremu instituzionalean, erreferentzia bihurtu da Uema euskalduntzeari dagokionez. Izan ere, euskaraz funtziona daitela erakutsi dute bertako udalek. Institutio mailatik haratago, herritarrentzako nahiz merkatarientzako zerbitzuak ere eskaini izan ditu, beharren arabera.

Hasierako hemeretzi udal horiek 73 dira gaur egun. Azkenaldian, beste hiru udalek Ueman sartzeko eskaera egin dute, eta 76 udalerrri izango dira laster. Guztien artean, 200.000 biztanle baino gehiagoko lurgunea osatzen dute Ueman dauden udalerrri euskaldunak.

Uemak gaur egun hainbat ildo eta zerbitzu ditu, euskaraz bizi nahi duten udalerrien beharrei erantzuteko. Udalen euskalduntzeaz gain, udalerrri euskaldunen zaintza eta garapena, eta bertako herritarren sentsibilizazioa eta ahalduzko dira nabarmenenak, horietan eragitea euskararen arnaguneei eusteko ezinbestekoa dela irizita. Hori dena herriz herri bideratzeko lantalde teknikoak du.



«Udalerri euskaldunek herri honi egiten dioten ekarpena festa giroan gogoratu nahi dugu»

Josu Labaka • Uemako lehendakaria

Udalerri Euskaldunen Eguna lagunartean edo familia giroan gozatzeko egun ederra izango dela aipimarratu du Labakak.

Leitzako Udalarekin batera, herritar, talde eta elkarte ugari lanean aritu dira Udalerri Euskaldunen Eguna prestatzen. Elkarlana «oparoa» izan dela nabarmendu du Josu Labakak.

Maiatzaren 28an Leitzan jende ugari eta giro ederra egotea espero duzue?

Giro ederra bermatuta dago. Uema eta Leitzako Udala ez ezik, Leitzako hainbat elkarte eta herritar aritu dira hilabete hauetan eguna prestatzen. Adin eta gustu guztietarako ekitaldiak izango dira egun osoan: herrien arteko kirolak, euskalgintza eta erakunde publikoak elkartuko dituen ekitaldi nagusia, *flashmob*-a, herri bazkaria, kantaldia, haurrentzako ikuskizuna, kontzertuak...

Lagunartean edo familia giroan gozatzeko egun ederra prestatu dugu, udalerri euskaldunak herri honen orube nagusiak direla gogoratzeko eta arnasmune hauek modu jasagarrian garatu behar ditugula aldarrikatzeko.

Leitzako herritarrek gustura ari dira lanean.

Uema sortu eta hiru urtera ere, 1994an, Leitzan izan zen Uema eguna. Orduko gogoan dute oraindik hainbat leitzarrek, eta

gustura hartu dute erronka. Aurten Udalerri Euskaldunen Eguna bertan ospatzea proposatu zionean Uemak Leitzako Udalarri, berehala erantzun ziguten, Leitzan horrelako zerbait antolatzekotan herriko eragileekin batera egin beharko litzatekeela. Esan eta egin. Lehenengo bileran dozentik gora lagun agertu ziren, gehienak Leitzako talde eta elkarteetako ordezkariak, bakoitza bere ekarpena egiteko prest.

Udalerri Euskaldunen Eguna, gainera, Leitzako Kultur Aroaren egitaraua osatu du nolabait, eta euskararen arnasmuneei buruzko erakusketa ere izan da ikusgai egunotan Goizuetan eta Leitzan. Leitzako aldeko ikasleek, besteak beste, udalerri euskaldunen egoerari eta euskararen bilakaerari buruzko tailerrak ere jaso dituzte egun hauetan, Uemako teknika-rien eskutik. Elkarlana oparoa izan da. Ekitaldian esango dugu, baina hemendik ere eskertu nahi dut leitzarrek erakutsi duten go-
Elkarlanaren garrantzia nabarmendu zenuten Uemaren 25. urteurreneko ekitaldian Aizarnazabalen. Uema elkarlanaren adi-

bidea da? Oraindik elkarlan handiagoa beharko da?

Hasieratik, elkarlanetik sortu zen Uema. Euskalgintzatik sortu zen, baina udalen mankomunitate gisara eratzean, erakunde publikoa bihurtu zen. Euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko elkarlanari eutsi dio bere ibilbidean zehar. Zubigintzan aritu da, orube bat herri mugimenduan eta bestea erakunde publikoetan duela. Horrela, Uemak 25 urte bete berri ditu, eta 25 urte hauetan erakutsi du gai izan dela udalerri euskaldunen garrantzia eta berezitasuna mahai gainean jartzeko. Udalerri euskaldunek herri honi egiten dioten

«Ueman dauden udalen kopurua goraka doa etenik gabe, eta esku artean gero eta egitasmo gehiago ditugu»

ekarpena aldarrikatzen dugu, Udalerri Euskaldunen Egunean festa giroan gogoratu nahi dugu, eta udalerri euskaldunak zaintzeko eta babesteko hizkuntza politika ausarta garatzen dugu. Euskararen normalizazioan benetako pausoak emateko lanean ari diren erakunde guztiekin elkarlanean aritzeko borondate irmoa dugu.



GOTZON ARANBURU / ARGAZKI PRESS

Horren isla dira hainbat erakunderekin eta elkarterekin elkarlanean ditugun egitasmoak.

Udalerri euskaldunen eralduntzen ari zaizkigula ohartuta, guztion elkarlana ezinbestekoa izango da joera hori iraultzeko. Eguneroko lanean ere elkarlanak benetakoa izan behar du. Egin eta esan, bestela hitz hutsetan gertatzen da guztia. 25 urtean horretan ahalegindu da Uema, etenik gabe egiten eta zabalitzen.

76 udalerri daude jadanik Ueman.

25 urtean egindako bidea ez da nolana hikoia, egia esan: udalak euskaldundu ditugu, herritarrek ahalduzkoak eta kontzientziatzeko proiektuak sortu ditugu, lehen aldiz udalerri euskaldunetarako hezkuntza proiektu integrala abian

jarri dugu, hirigintzak hizkuntzaren duen eragin linguistikoa ebaluatzeko tresna sortu eta EAEko Udala Legean lekua izatea lortu dugu, eta udaletako aktak euskaraz idatzi ahal izatea ahalbidetu dugu, besteak beste. Oztopo guztiei aurre eginez, Uemak lan egiten asmatu du, eta aurrera egin du, bidea zabalitzen. Hemeretz

udalerrik sortu zuten Uema, eta larunbatean sartuko diren herritar kontuan hartuta, Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta, 76 udalerrik osatzen dute gaur egun Uema. Udalen kopurua goraka doa etenik gabe, eta lanari dagokionez ere esku artean gero eta egitasmo gehiago ditugu.

Urte amaierarako udalerri gehiago egongo dira Ueman? Lapurdikoak, Nafarroa Beherekoak eta Zuberoakoak, noizko?

Herritarren %70 baino gehiago euskaldunak diren udalerriei esaten zaie udalerri euskaldunak, eta horietako asko oraindik ere ez dira Uemako kide. Uemak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagututa, ordea, euskararen arnasmuneak babesteko dituen politika aurrerakoi eta ausartak herrian abiarazi nahian, hainbat udal ditugu atezoka, eta urte amaierarako 80 bat udalerrira iritsiko gara segur aski.

Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako udalerri euskaldunak dagokienez, muga administratiboengatik eta Uemaren mankomunitate izaeragatik, ezin dira mankomunitatean sartu, baina Uema ia hasieratik aritu da lankidetzan lurralde horietako erakundeekin eta udalekin.



25 URTE BIDEA ZABALTZEN